

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko ekainaren 2a / VI. urtea / 181. zenbakia

Arazoa aspalditik bazetorren ere, aurten eztanda egin du. 1963an sortu zenetik Euskal Herri osoan famatuenetakoa den bestarik gabe gelditzekotan egon da Baztan 1995ean. Zortzi urte honetan eguna antolatzeaz ezezik elkarrekin urtean zehar egiten dituen ekitaldiak prestatzeaz arduratzen den taldeak

Baztandarren Biltzarra, kili-kolo

hordagoa bota zuen duela hila-bete eskas, eta erantzuna ez zen oso ona izan. Hala ere, gehien-goia segitzearen alde azaldu zen. Erreleboa inoiz baino beharrezkoagoa da, eta batez ere jendearen partehartze handiagoa. Horretarako sortu da talde gaztea, baina lehen trabak aurkitzen hasiak dira dagoeneko.

Xoko tiki

ESTITXU FERNANDEZ



Agurra

Nafarkariako xoko tiki hau betetzeko erran ditate, nahiz eta kazetaria ez izan, ezta pertsona ezagun bat ere. Bertsotan aritzen naiz, hori bai; gaztea naiz, emakumea... Agian, errateko zerbait interesgarria izango dudala usteko dute. Ba ez; errateko zerbait agian bai, baina interesgarria...

Egun hauetan etxeko idazmakinaren bezero nagusia bilakatu naiz, seguru aski ikasle aunitz bezalaxe. Azterketa be-deinkatuak hasi aintzinetik, irakasleei halako 'mania' bat sortzen zaie: etxeko lanak bidaltzen hastea, bat bertzearen gibelatik, denbora soberan bagenu bezala. Hau horrela, asti haundirik ez badut ere, tarte bat hartu dut lerro batzuk idazteko; egia erran, garai honetan pilatzen den tentsioa askatzeko metodo ezin hobea izan da.

Xoko tiki honetan bi hilabetetik behin edo, topo egingo dugunez, nire biografia ez baina datu batzuk beharrezkoak direla uste dut, ixtorio motz bat, zurekin, irakurle, lotura handiagoa izateko. Lesakarra naiz (a ze San Ferminak Lesakan, e?), hogei urte beteko ditut aurten. Psikologia ikasten dut Euskal Herriko Unibertsitatean (eta ez Euskal Unibertsitatea), futboleant jokatzen dut, dantza talde bateko partaide eta irakasle naiz eta bertze gauzen artean bertsotan ere zerbait egiten dut.

Seguru aski Lesakari buruz, unibertsitateari buruz, bertsoei buruz edota edozer gauzari buruz idatziko dut gure xokoan; bururatzen zaidan txorakeriarik haundiena idazteko ere gai naiz, gaur bezalaxe. Baina nire txanda ailegatzean, zintzo-zintzo izan-go nauzu gure xokoan, zure arreta erakarri nahian, xoko tiki honetatik kanpora atera dadin nire ekarpen exkaxa.



GURE AUKERAK

MUSIKA

'Balerdi-Balerdi', 'Begira' eta 'Nahi ta nahi ez' musika taldeen gaupasa izanen da bihar larunbata, ekainak 3, Agoitzen. Bertako AEKK antolatuta, herriko pilotalekuan izango da.

'Behin Betiko', 'Sasoi ilunak', 'Pottoka band' eta 'Nahi ta nahi ez' musika taldeen kontzertua eskainiko dute gaur ostirala, hilak 2, Lakuntzan. Herriko Euskararen Asteko ekitaldien barruan, kontzertuaren aurretik mintzaldia izanen da 'Euskara eta Rocka' gaiari buruz, arratsaldeko 7.30etatik aurrera.

'Luz de cruce' eta 'Todo al rojo' musika taldeen kontzertua izanen da gaur ostirala, hilak 2, Atarrabian. Bertako udalak antolatuta, arratsaldeko 8.30etan hasiko da.

BERTSO SAIOAK

Estitxu Fernandez, Nerea Bruño, Bittor Elizagoien eta Iñigo Olaetxea bertsolarien saioa izanen da igande honetan, ekainak 4, Iruñeko Arrosadia auzoko Manuel de Falla enparantzan.

Xabier Amuriza eta Eugenio Igartzabal bertsolarien saioa izanen da igande honetan Lakuntzan, Euskararen Asteko ekitaldien barruan. Bertso bazkari moduan antolatuta, eguerdiko 3.00etan hasiko da.

ANTZERKIA

'Mudo a la fuerza' izenburuko antzezlan taularatuko du asteburu honetan Nafarroako Antzerki Eskolako ikasle talde batek. Comedia dell'Arte ikuskizunaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Eskolan bertan, larunbat eta igandeko saioetan.

BESTELAKOAK

II. Nafarren Eguna ospatuko da ekainaren 11an Irunen, Labrit Naparren Elkartek antolatuta. Urdanibia Hotelean izanen dira ospakizunak: goizean meza santua Panoramika Aretoan, ondoren Nafarroako produktoen erakusketa izanen da, horren ostean bazkaria Iruña aretoan, eta azkenik musika ekitaldiak eta erromeria zaldegian. Bazkariko txartelak 4.500 pezetan izanen dira salgai ekainaren 3a arte.

Guardetxeko IX. Igoera ospatuko da igande honetan Lakuntzan, goizeko 10.30etatik aurrera. 12 kilometroko ibilbidea da, herriko Plazatik Guardetxeraino eta buelta. Frogaren errekorra 48 minutu eta 47 segundotan dago, Juan Mari Garin Alegiakoak 1.992an ezarria.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Harro-harro

Nahi eta ezin, izan dira hemen azkenotan, eta beste deusetaz ez omen du inork hitz egin —gezurra, nik Parisi buruz hitz egin dut, udaberriaz, suitzar horretaz, Realaren garaipen zoragarriaz...—. Eta esan dezaket, inolako lotsarik gabe, txuriurdinen gol sorta izan dela egunotan gehien hunkitu nauena.

Realekoa naiz, betidanik —betidanik ez, txikitan, kromoekin eta aritzen nintzelarik, Atletico de Madrid, Español, Athletic eta Barça ere tartean ibili zirelako—, eta etxeko zoritxarrerako. Haiek Osasunaren zaleak beti. Niri ordea beti triste samarra iruditzen zait gorri-urdin ilun hori, eta norbaitek betiko taldea aukeratu behar duenean, jakina da elastikoaren erakargarritasunak duela pisurik handiena. Txuri-urdina, beraz. Makina bat partidu ikusia naiz Atotxan eta Sadarren, eta gorritxoekin hainbat derbi pairatu, ondoan etxekoak nituela. Pairatu haiengatik, beti irabazten genduelako...

Derbiak, gero, zuri-gorri harropuz horiekin izan ziren, eta hasieran denak elkartasuna zela azaltzen bazuten ere, beti bazegoen tentsio pittin bat gordeta begirada eta keinu guztietan «4-0, ezta? Beno, zuek ere ondo aritu zarete», esaten zutenean, «izorrai, lau gol!» esan nahi zuten. Gero, herrira itzuli, eta Realzale bakanekin ezkutatu behar, penalti hura adierazi izan balu



soinbeltz madarikatuak gauza asko alda zitezkeela eta gogoratuz.

Ni poztu egin nintzen begiradak nabariagoak egin zirenean, jendeak ahobatez esan zuenean 'Aupa Real!' eta 'Izorrai Athletic!', erreprimetuta geundelako ia. Orain askoz gehiago gozatzen dugu batzuek zein besteek, eta


horrela gozatu nuen nik gozatu nuen bezala lehengo igandekoarekin.

Sikiera, azkenotan beti isiltzera behartzen ninduen Athleticzale horrekin —bakarrik futbolaz hitz egiten baitugu hitz egiten dugunean— hitz egin ahal izango dut patxadaz asteburu honetan, harro-harro.

ASTEKO PERTSONAIK



Mercedes Navarro
GKEko Laguntzailea



Pablo Antoñana
Idazlea

Joan den astelehenean hil zuten tiroz Mercedes Navarro iruindarra, Mostar hirian Medicos del Mundo Gobernu Kanpoko Erakundeko programa batekin lanean ari zenean. Auzo beran bizi zen gizonezko batek, burua momentuan nahasia zuelarik, hil zuen; berarekin zegoen Alberto Fernandez medikuak ere zauri larriak izan zituen, tiro batek jo baitzuen. Nafarroako Gobernu funtzionaria hainbat urtetan, eszedentzia eskatu zuen Mercedes Navarrok orain dela hiru urte Medicos del Mundo GKErekin lanera joan ahal izateko, Brasilen eta Ginean lehen, eta Mostarren azken hilabete honetan. Baina gerran dagoen tokia da Mostar eta gerra garaian edozer gerta daiteke, halako heriotza zentzugabea barne.

Orain dela 33 urte idatzi zuen Pablo Antoñana Bianako idazleak 'La cuerda rota' izenburuko liburua, baina garaiko zentsura zela eta, gaur arte obrak ez du argirik ikusi. 1.962. Nadal sarian bigarren postuan geratu zen obra hau, baina Destino argitaletxeak ez zitzaion egokia iruditu publikatzea, eta itzalean egon da Pamiela argitaletxeak ateratzea erabaki duen arte. «Hasierako liburu bat da, ia ahazturik dautkadana, maitasunez idatzia baina zortetik izan ez duena», azaldu zuen Antoñanak berak aurkezpen egunean. Bertan, etorkin portugaldar batzuk Nafarroako Piriniotatik barna muga modu ilegalez pasatzeko bideak eta abenturak kontatzen dira. Hasi berri den Liburuaren Azokan salgai izanen da, 1.450 pezetan.

EKITALDIK



Katekesi Eguna 1.995 ospatuko da igande honetan, ekainak 3, Iruñean. 'Zer egin elkarrekin? Zer egin Jesusekin?' leloarekin, goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko bostak arte luzatuko dira antolatu diren ekitaldiak, Salestarren Ikastetxean. Katekesi ikastaroaren amaiera bezala antolatua dago, konpromezu bezala, eta haur, guraso eta katekistentzat zuzendua dago. Goizeko 10.30etan harrera izanen da, eta ordubete beranduago aurkezpenak eta agurrak. Aurkezpenak eskualdeko egiteko asmoa dute, beraz eskualde bakoitzak erabaki behar du aurkezpen hori nola egin. 12.00etan 'Kiki, Koko, Moko eta Flax' pailazoaren animazio taldeak emanaldi bat eskainiko dute, bertan bildutako haurrak eta gazteak alaitzeko asmoz. Ondoren, ordubata eta laurdenetan, elizkizuna izanen da. 13.30etan hasiko da bazkaria, bakoitzak bere kabuz eraman behar duena, eta bazkal ostean jaialdia hasiko da, hau ere bakoitzak prestatu beharrekoa.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROKIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Donibane-Garazi

Baxenafarroa dantzan

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Garaztarrak taldeak nahi zuen bere 40. urtemuga molde berezi batez ospatu. Baxenafarroan diren dantzari guziaz gonbidatu Garazin. Probintziako dantza taldeek zein kabalkada eta bestaberriak antzezten dituzten talde gehienek luzatutako deiari ihardetsi zioten joan den igandean, eta 250 bat dantzari espero bazuten ere 350 baino gehiago elkarretaratu ziren.

Ekitaldia goizetik abiatu zen Baxenafarroako hiri nagusiko karraketan, dantzari eta musikarrien ibilaldiarekin. Desfile erraldoia ikusteko parada izan zuten bildutako lagunak eta azken taldea oraindik Herriko Etxearen parean zegoenean, talde aitzindariak itzuli osoa egina zuen. «'Euskaldun sorginak' eman dugu herriko etxearen aitzinean eta 150 dantzarik parte hartu dute dantza horretan, lau lerrotan, denak oihuka», adierazi zuen poztasunez beterik Filipe Maite taldeko lehendakariordeak. Hots, Garaziko taldeari bateratu ziren Baigorriko Arrola, Arberatzeko Burgaintzi, Gabadiko Iruksi, Lekorneko Ursuko Xoriak eta Itsasuko Ataitze taldeek. Azken bi taldeek, Lapurtarrak izan arren, ekitaldian parte hartu zuten Baxenafarroako dantzak emaiten baituzte Nafartar moduan Maitek azpimarratu zue-nez.

Aratsaldean, ezohiko ekitaldia ikusteko 600 lagun bildu ziren Garaziko Jai Alaian eta «emaldia xarmanki iragan da» Mai-



350 dantzari inguru bildu ziren Donibane-Garazin joan den igandean.

LF.

tek zioenez. Ikusleria nahiko desberdina zen, ondoan ikusten baitziren gazte anitz eta hainbeste adintsuago jendeak. Nahiz eta azpimarratu behar da gehienak behenafarrak ziren, hala ere hego aldetik etorritako adixkideen presentzia nabari zen, Gernikako dantza taldea eta Iruñeko ordezkariak publikoan baitziren. Ekitaldia amaitu zuten ehunka metro zituen 'Xoka Dantzarekin', us tekabe haundia sortuz publikoan dantzariak banaka sartzen zirelarik.

Beste hitzorduak finkatu ditu Garaztarrak taldeak urtebetetzea ospatzeko, erakusketa eta zazpi

probintzietako dantza ikusgarri antolatuko baitu agorrilean. Erakusketari dagokionez, lagunak bidali ditu Baxenafarroako herrien zehar kabalkada edo bestaberrien artxiboko argazkiak aurkitzeko. «200 bat argazki bildu ditugu eta 80 bat erakusketan aurkeztuko ditugu, adieraziz egindako testuekin zer diren ikusgarri horiek», Filipe Maitek adierazi zuenez Erakusketa agorrilaren 26an estreinatuko dute eta hilabete bat Garazin egonen da. Ondoren, Euskal Herriaren itzulia eginarazteko asmoa dute antolatzaileek eta erakusketa proposatzeaz gain,

Garaziko kabalkadaren emaldia antzeztea eskainiko dute.

Beste hitzordua agorrilaren 13ko finkatu du taldeak, Garaziko pilota plazan zazpi probintzietako taldeak elkarretaratu baititu Garaztarrak. Besteak beste ikusgai izanen dira Uztaritzeko Izartxo, Muskildiko dantzariak, Iruñeko Ortzadar, Bizkaiko Foruko Urdabai eta Donostiako Goizaldi taldea. Araban ez dute oraindik talderik aurkitu, ez baitute harreman berezirik bertako taldearekin eta Nafarroatik beste talde bat etorriko da, herriko etxeak Lizarrako taldeari gonbit berezia egin nahi baitio.

Iruñea

Euskalerrria Irratiaren afari irekia ekainaren 16an

ENRIKE ETXARTE / IRUÑEA

Hauteskunde gauean Nafarroako datuen berri hurbiletik, zuzen eta zehatz eman ondoren, berriz ere albiste iturri dugu Iruñeko Euskalerrria Irratia, bere lehendabiziko afari irekia pres-tatu baitu. Izan ere, Irratiaren Elkarteko batzordean jende berria sartu zen joan den larrazkenean, eta, haien helburua da irratiaren oihartzuna Iruñerriko karrika, auzo eta plazetan barrena zabaltzea, irrati lanaren osagarri: kamisetak atera dituzte, pegatinak, pin delakoak ere bai, eta, ahalegin horren ondorioa izan zen joan den martxoan, Labrit pilotalekuan arrakasta handiz burutu zen haurren jaialdia, frontoia haurrez beterik baitzegoen.

Oraingo honetan bertze bide bati lotu dira, hots, sari bat emanen diote Nafarroako euskaldun famatu bati, Elkarteko presidentek, hau da, Elena Ezkietak

azaldu digun moduan: «Bai, erdal munduan badira izen handiko sariak, oso entzutetsuak, behintzat, eta gure euskal mundu honetan zenbait badira ere, guk bat eratu nahi izan dugu mugak gainditzeko asmoak akuilatuta, erdaldunek ere jakin dezaten euskaldunok izan bagarela, bagabiltzala eta hemen bizi garela». Oraindik ez dute jakinarazi nori egokituko zaion saria hartzea, baina sari-ematea afari baten bitartez gauzatuko da, ekainaren 16an, Burlatoko Hilarion Eslaba Ilko polikiroldegian. «Ez baita soilik saria ematearena, hori jakitera eman behar da lau haizeetara, publikoz jokatu behar dugu, eta, hortik dator afari jendetsua-rena. Berrehunen bat edo bilduko

gara, eta gehiago baldin bagara askoz ere hobe; horretarako lanean ari gara».

Afariaren mezua hedatzen ari dira, beraz, hauteskunde kanpainaren akaberarekin batera, eta, gonbite berezia egin nahi izan diete Iruñeko eta Iruñerriko euskaldun eta euskaltzaleei: «Ez baitugu atzendu behar Euskalerrria Irratiaren helburu nagusietako bat dela laguntza ematea, bide eta bitartekari izatea hemengo euskaldunen elkar eza-gutzari begira, uste baino aunitzez ere gehiago baikara. Horregatik, gustatuko litzaiguke afari horretara etortzea euskalgintzan ari direnak: AEK eta IKAREN inguruan, gainontzeko euskalte-gietakoak, irakasle eta ikasleak,

ikastola eta eskola elebidunetakoak, Diputazioko itzultzaileak, herrietako euskara teknikariak, eta, hortaz landara, baita gure entzule direnak ere, noski, egunez egun irratia pizten duen euskalduna, etxeoandrea, gazte eta zaharrak...».

Afari txartelak salgai daude Txantreako Txorimalo eta Donibaneko Toki eder tabernetan; Auzolan eta Xalbador liburudendetan hala nola Irratian berean, 2.000 pezetan. Komenigarria da txartela ahalik eta lasterren erostea afaltiarren kopurua zehazteko. Afalondo animatua izanen da gainera, eta, besta giro ederrak kiroldegia hartuko du, trikitilarien eta Iruñeko Jarauta 69 musika taldearen eskutik. Horra, hortaz, Iruñeko Euskalerrria Irratiaren saialdi berria, eta, zuk ere irakurle, zure lagunekin, ikaskide edo koadrilarekin afarian parte har dezakezu, jai ederra izanen baita.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

'40 ogerleko'

Elizetara arima gutxi hurbiltzen diren honetan, fedea krisaldian dabilen honetan, espetxeko kapera lepo betetzen da igandero-igandero. Horren erantzulea '40 ogerleko' ezinez ezaguna den kartzelako apaiza da. '40 ogerleko-k' kristoren trebeziak —noren trebeziak, bestela?— ikustarazten die fedearen argia askatasunik ezaren iluntasunean murgildurik dauden presoek. Erabil daitekeen linternarik hoberena erabiltzen du horretarako: mezara joaten den preso orori 40 ogerleko ematen dizkio, 200 pezeta. Crisis, what crisis?, ekonomikoa bai; fede krisia, baina, inondik inora ez.

Hala ere, ateo setatienok, gure arima lau kaferen truke saltzen ez dugunok —horiek dira ekonomatoan 200 pezetaren truke eros ditzakezun kafeak—, igande goiza pasean



ematen dugu, patioa hutsik geratzen dela aprobetxatuz, arima eroslearen atzapar kristautzaileetatik urrun. Joan den igandean, baina, apaiza aldareetatik patioa jaitsi zen gure arimen bila. Dirua aski ez zela ikusirik, jai giroarekin saiatu zen. Joteroak eraman zituen mezara, eta meza bukatutik patioa jaitsi ziotuen gurutzada egiten. Irudia zinez surrealista zen: lau jotero zuri-gorritz jantzirik patioaren izkina batean, Jesus ijitoa —apur bat dopaturik akaso— jotak sevillanak balira bezala txaloak jotzen, funtzionariak badaezpada ere Jesus gertutik zaintzen, intsumisoak barrez... 'No te vayas de Navarra' eta 'A mi me gusta el pipiriripipi...' bezalako perlak entzuten genituelarik, ez zuen ematen ateoek fedearen argia ikusiko genuenik. Azkenean, baina, guztioi santu baten irudia sartu zitzaigun buruan, joteroek Aldapa peñaren himnoa jo zutelarik: San Fermin. Tonbola martxan izanen da jada, aurki entzierorako oholtzarrak paratuko dituzte, lehen giriak helduko dira... AAAGH!



Baztandarren Biltzarren lehen ekitaldia 1963an egin zen.

Baztandarren Biltzarrak, Baztan osoko biztanleak biltzen duen festak, une larriak bizi ditu aurtengo ekitaldia prestatzeko. Eguna antolatzen duen elkarteak kexu ziren aspaldian prestakuntzetan jende gutxi hartzen zuela parte-eta, eta laguntzaileak lortzeko deialdia izan zen. Gazteek dute orain giltza, beraiek agertu dutelako gogo handiena, Baztandarren Biltzarra ez dadin izan, azkenotan bezala, Bakar batzuen Biltzarra.

Bakar batzuen Biltzarra

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Ozta-ozta, baina azkenean Baztandarren Biltzarra aurten ere egin egingo da. Kilikolo egon zen Baztanen zabaldu zen eztabaidaren ondotik, eta beste urtebetz eustearen aldekoak nagusitu baziren ere, ez dirudi bere iraupena oso ziurtaturik dagoenik. Ez behintzat jarrera batzuk errotik aldatzen ez badira.

Arazoa aspaldikoa da. Baztan osoa biltzen den elkarte honetako kideek ia urtero bota dute erronka: erreleboaren premia gero eta larriagoa da. Inor gutxi hartu ditu, hala eta guztiz ere, aintzat. Urteak urtera, duela zortzi urte beste batzuen txanda hartu zutenetik, jende beraren bizkarrean erori da lan handia eskatzen duen antolakuntzaren zama, eta festarako aparteko erantzuna izan baldin badute ere, lanerako deialdiek ez dute hainbesteko arrakasta eduki. Hori dela eta, antolatzaileen artean nagusitu egin da, denboraren poderioz, bakardade sentimendua, ez bakarrik Baztandarren Biltzarren antolakuntzan, baina izen bera daraman elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldietan ere. Kexua garbia da: lanerako deialdia egiten denean jendea azaltzen da, baina barrutik ez da

lanik egiten. Hori dela eta, elkarte oso-osorik aldatu beharra azpimarratu dute antolatzaileek.

Aurten bildu zuten Baztan osoko gazte koadrila ederra, eta lanean hasi ziren beraiekin batera, datozen urteetako erreleboa prestatzeko. Baztandarren Biltzarreko Gazte Saila izena hartu zuten. Baina aurtengo Baztandarren Biltzarreko aurreko ur-

teetako joera burtsua nagusitzen ari zela ikusirik, sentsibilizazio kanpaina egin zuen taldeak: bilera antolatu zen aztertzeko ea zer egin zitekeen jendeak gehiago parte hartzeko. Duela hamabost egun egin zen bilera, eta partehartzea polita izan bazen ere —60 bat lagun azaldu ziren—, gehienak gazteak zirela-eta etsipen nabari zen antola-

zaileen artean. Bi jarrera nagusitu ziren orduan: gazte batzuk aurtengo ekitaldia bertan behera uztearen aldekoak ziren; beste batzuek, aldiz, festak aurrera egin beharra nabarmendu zuten. Hauen iritzia nagusitu zen.

«Orain ohartzen naiz duela zortzi urte sartu ginenean zer gertatzen zen». Mikel Iriarte arizkundarra azken zortzi urte

«Uste genuen bakarrik egiten zela»

A.B. / IRUNEA

■ Patricia Leitza duela urtebete osatu zen gazte koadrilan dabilenetako bat da, Baztandarren Biltzarren Gazte Saileko partaideetako bat, alegia. Bertan sartu baino lehen, Baztanen, antza, oso zabaldua dagoen irudia zuen Patricia ere: «Hasieran Baztandarren Biltzarra ezagutzen genuen egunagatik, ez genekien urtean zehar elkartearen bazenik ere, bakarrik egiten zela uste genuen». Bera izan zen 'helduen' deialdiari erantzun ziotenetako bat, eta orain ehun dira. Legalizatze egin beharre-

ko guztiak eginak, indar handia hartu zuen hasieran talde hark, baina herrian-eta izan zituzten lehendabiziko oztipoek atzerazi zituzten batzuk. «Hasiera oso ona izan zen» dio Patricia. «Banatu ginen batzordeetan eta hasi ginen lanean, baina segituan ikusi genuen ez zela errazegia, eta batzuek utzi egin zuten. Herrian hasi ziren marmarka eta kritikak heldu ziren, betiko kontuengatik, barra bat paratu genuelako eta. Gero ikastaroak hasi ginen antolatzen eta partaidetzak berriro gora egin zuten».

• Lokalarena izan da denbora honetan kezka nagusia, urtean

zehar egin nahi dituzten ekintzak egin ahal izateko autofinantzaketak izan dutelako beti buruan, kontzertuen bidez-eta, baina arraso kezkatzen ditu jendearen axolagabekeriak. «Guk planteatu genuen hobe zela urte batez festa ez egitea orain arte bezala egitea baino, baina batzuek ez zuten ulertu. Udaletxean, adibidez, ez dute ezer egiten. Aldrebes, berdin zaie...». Aurtengo Baztandarren Biltzarrean beren kezka eta helburuak azaltzeko mahaia paratuko dute. «Jendea pixkanaka konturatu da eskatzen duguna normala dela, eta gehiago ezagutzen du gure lana».

Gazte batzuk aurtengo ekitaldia bertan behera uztearen aldekoak ziren; beste batzuek, berriz, festak aurrera egin behar zuela nabarmendu zuten. Hauek nagusitu ziren.

hauetan aritu da elkartearen barruan, Euskal Herrian aspaldian famatu zen egunarekin ezezik, urtean zehar egiten diren beste hainbeste ekitaldiak —Eguberrietako Hamabostaldi kulturala, lehiaketak...— ere prestatzen. «Ilusio eta gogo handia genuen orduan, baina jende berriaren behar handia zegoen, eta batzordea ia erabat aldatu zen. Urtean poderioz behar hori ere sumatzen hasiak gara hemen, elkarte zabal bada ere, lana delako, ez bertzerik, egin behar dena». Hori dela eta, harrobia sortu beharraz ohartu ziren duela ez asko. Lanaren truke zerbait eskaini behar zutelakoan, elkartearen azpiegitura guztia eta lokala eskaini zitzaien gazte taldeari ez bakarrik Baztandarren Biltzarren egunerako, baina baita urtean zehar beraiek izan zitzaketen proiektuendako ere.

Gazteen erantzuna aparta izan zen oso, eta lanean hasi baziren ere, lehendabiziko oztipoa ez zen berandutu. Egun Merkatuko Plazan duten egoitza txikia eta oso gaizki egokituta izanik, baimena eskatu zitzaien Udalari konponketak egin ahal izateko. Soilik baimena, lana auzolanean egin nahi zuten eta. Orain arteko erantzunak ez dira oso onak izan. Hiri Plangintza dela eta, arazoak paratu ditu Udalak eskatzen diren aldaketak egin ahal izateko, eta oraindik data finkorik ez duen kultur etxearen zain egoteko gomendatu die. Elkarteak, alabaina, premia dute, premia handia. «Hau da bailara osoa elkartzen duen elkarte», dio Iriartek, «eta hau da besta bakarra. Eta orain gaude murgilduta berriro prozesu honetan, eta orain behar dugu lokala. Ez dago ez kalefakziorik ez komunik. Orain bildu dugu gazte talde polita, eta bere horretan uzten badugu, ez badiegu gazteei segitzeko aukera ematen, beraiek izan ditzaketen asmoak eroriko dira. Gero gazte horiek berriro goratzea izanen da zailena».

Urte hauetan guztietan kexua besterik ez dute izan elkartearen Udalarekin. Aurreko legegintzaldian, Union Baztaneko alkatearekin, trabak baino ez zitzaizkiela jarri azpimarratu dute beti antolatzaileek, eta EAko alkatearekin gauzak aldatu egingo zirela pentsatu bazuten ere, ez da izan espero zutena. «Laguntza ekonomikoa eta moral handiagoa behar dugu». Baztandarren Biltzarra ez zela egingo pentsatze hutsak ikara sortu zion baten bati, eta aurten egingo da, beraz, besta. Heldu den urtean?

Guatemala: ezezagun hori

● Amaigabeko udaberri eta kolore ehunduekiko lur honek, oraindik ere, tirania eta biolentzia pairatzen ditu.

Horrelaxe deskribatuko genuke toki honen historia; aitzinamendu handiko eta aurrerapen zientifiko nabarmenetako (astronomia, arkitektura...) kultura milenario batek leku hartu zuen tokia, hain zuzen.

Zenbait historiarik diotenez, espainiar oldeak iritsi zirenean, 1520 aldera, herri basak aurkitu omen zituzten, kulturagabeak, paganoak... eta zaindu beharra zutenak; baina errealtatea bestelakoa izan zen. Laster eta erraz aberastu nahi zuten gudazale eta abenturazaleen ailegatzeak hauxe ekarri zuen lur honetara: krudelkeria, izua, torturak, heriotzak, gorputz txikitzeak, iruzurrak, traizioak...

Konkista ez zen inbasoreen paseoa izan, bertako biztanleak geldi eta esker onez otzan-otzan zeudela. Erresistentzian gogor saiatu ziren, burutsu eta denbora luzean, nahiz eta ez berdintasunean. Erresistentzia heroikoa gora-behera, konkista burutu egin zen, giza-bizi asko eta sufrimendu handia kostarik. Espainiar gudazaleak militarri gehiago ziren, armak eta zalditeria lagun, indigenek ez baitzuten halakorik ezagutzen.

Garaituen iritzia Chilam Balam-en Liburuaren Liburuan adierazirik dago: «Txit kristauak benetako Jainkoarekin iritsi ziren hona. Baina horixe izan zen gure zorigaitzaren hasiera, zergarena, eskupekoarena, desadostasun ezkurtua azalaraztearen arrazoia, su-armazko liskarren hasiera, zangopetzeen hasiera, edozer kentzearen hasiera, bizkarraren zamaturiko zorregatikoko esklabutzaren hasiera, etengabeko liskarraren hasiera, pairamenaren hasiera...».

Funtsean, konkista okupazio-gerra izan zen, lurralde bat eta bertako biztanleak menperatu eta ustiatzeko.

Hori izan zen lehen pausoa sistema sozio-ekonomiko menperatzaile bat ezartzeko, indigenek egundaino ezagutu gabea, aurrekoa sistema suntsitzea ekarri zuena, batez ere berezko herrien heldutasuna eta gizatasuna adieraz zeza-keten elementuak.

Horrela etorri zen kultura eta nazio nortasunaren adie-

razpide orenen desegitea; desegin ziren liburuak eta tenpluak, egitura sozial eta politikoak, elkarrekin bizitzeko eta merkataritzako sistemak, praktika erlijioso eta intelektualak...

Era horretan, eten egin zen herri baten iraganetik gerorako prozesua. Historiak beste norabide bat hartu zuen, opresioa eta bereizkeria zituena ezaugarri, gaur egungora arte.

Garai Kolonialean, Guatemala Espainiako Erregetzak gobernatu zuen; Independentziarekin (1821), boterea kla-

ren bat bestearen ondotik gaur arte izan diren diktadura militarrek.

Agintea militarizatu egin zen, eta Guatemalako armada gutxika-gutxika indar handiagoa hartuz joan zen herrialdeko egitura politikoan, sistemaren ardatz nagusi bihurtzeraino.

Indigenak, lur hauen benetako jabeak, eta Guatemalako herria oro har, herriko aberastasunez gabetuak gelditu ziren, inolako eskubiderik gabe eta euren bizkar esklabutuena gain hartuz etxaldeetako eguneroko lana, landaketeta-

militarra eman zuen 1982an eta Lucas García kidea agintetik kendu. Junta Militarrek 'Segurtasun eta Garapenerako Plan Nazionala' prestatu zuen, zein oinarritzen baitzen gerrilaren aurkako borrokan, herritarren kontrolean eta irekidura demokratikoan. Plan hori aplikatu egin zen, eta gerrilaren aurkako kanpaina gogorak ekarri zituen; bere ezaugarri izan ziren sarraski izugarriak eta populazio zibilaren aurkako 'lur brrintze' operazioak. 'Arrainari ura kentzea' zen helburua, hots, mugimendu iraul-

tietan herri ibiltari izanez jasan dituzte armadaren ekinaldiak, oihanetik atera eta herri modeloetan sartu nahi baitzituzten.

Erbesteratu zirenetatik, gehienek Mexikoko muga zeharkatu zuten; batzuek iparralderantz jarraitu zuten eta EEBBetan jarri ere bai, are Kanadan ere. Hilabete zenbaitetako bide luze eta latza izan zen; paperik gabe ziren eta, beraz, joaten ziren tokietatik deportatzeko arriskuan.

Beste batzuk gorderik gelditu ziren Mexikoko herri, hiri eta arrantxoetan; 11.000 inguru dira eta 'ihesliar sakanatuak' deritze. Hauek ere legez kanpo daude, paperik ez dute eta.

Aitzitik, Mexikoko mugan zehar kanpamenduak osatuz kokatu ziren 50.000 errefuxiatuak, ezagutu egin zituzten ACNURek (Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiak) eta Mexikoko Gobernuak, eta migrazio agiria eman zieten. Hamabi urte luze daramate erbestean eta zain, beren herrira itzuli ahal izateko. Hainbat urtetan Guatemalako Gobernuarekin negoziatzen ari ondoren, Mexikoko errefuxiatuek lortu zituzten akordio batzuk, zehazten dutenak nola eta zer baldintzatan itzuliko diren beren herri maitera, Guatemalara. Nahiz eta gobernuaren hitza izan, nazioarteko ordezkariak lekuko direlarik, akordio horiek ez dira betetzen ari.

Errefuxiatuek elkartasuna eta presioa eskatzen diote nazioarteko komunitateari, itzulera akordioak bete daitezten.

Beste eskaera bat, herri solidarioei egiten zaiena, hauxe da: nazioarteko boluntarioak bidaltzea itzulerako karabanak laguntzeko, lekuko izan daitezten eta errefuxiatu jendea sustenga dezaten, Guatemalako Armadaren gehiegikeriarik gerta baledi ere.

Gure desioa da herri hauen esperantza errealtatea bihur dadin eta laster egon daitezten milpa ereiten beren Guatemalako lur irrikatueta.

Rigoberta Menchuk esan zuen bezala: «Guatemalako herria gau luze eta ilunean sartu zen eta dagoeneko 500 urte dirau horrela, baina dagoeneko begitantzen da argitasun izpi bat egunsentia ekarriko duena».



JOSE ALBERTO UBIERNA

se kriollo menperatzaileak hartu zuten, Liberalak eta Kontserbadoreak txandakatzaren zirela Gobernuan. Mende honen hasieran, iparramerikar konpainiak sartu ziren, eta horren ondorio izan zen gobernu totalitarioen segida, 'inbertsiorako giro egokia' ziurtatzeko.

Izan zen garai bat, 1945etik 1954 bitartekoa, non jarraian izan ziren bi gobernu moderatu eta aurrerakoi: Guatemalako herriarentzako nola-baiteko arnas-hartzea izan zen, baina laster arduratu ziren CIA eta EEBBetako gobernu konspirazioa prestatzeaz. Azkenik, eskuhartze militarra etorri zen eta ondo-

koa, lantegietakoa.

1962. urtearen amaieran, mendietan lehenbiziko gerrilak antolatu ziren, diktadura militarren eta haien tiraniaren aurka borrokatzeko.

Hurrengo hamarkadan, 70eko urteetan, are latzago egin zen lur-langileen eta hirietakoen zapalkuntza; areagotu egin zen krisi ekonomikoa, hala nola diktadura militarren usteltzea, eta mugimendu iraultzailea sendotuz zihoan.

Presio soziala eta herriaren haserre gehituz zihoazen, nahiz eta errepresioa, giza eskubideen zapalkuntza eta herriaren militarizazioa hori izan. Egoera honi erantzuteko, Rios Mont jeneralak kolpe

tzaileari euskarri soziala gutxitzea.

Honako hau izan zen emaitza, datutan: 440 herri desagertu ziren guztiz, milioi pertsona beren lekuetatik aldatu ziren bizia salbatzeko, 60.000 izan ziren hilak edo desagertuak, 500.000 lagunetik gora armadak kontrolatutako herri modelo eta garapen guneetan bizi dira, eta 200.000 erbestera egin ziren.

Guatemalan bertan lekuz aldatu zirenetatik, familia asko oihanaren itxian babestu ziren, ihes egin eta armadaren kontrolari itzurtzeko. Erresistentziako Jendearen Komunitateak eratu zituzten (CPR) eta urte hauetan guz-

Erantzungailu Automatikoa

Galdera: Atzo nere telefono erantzutzaile automatikoan honako hau ediren nuen: Antsika, nire besoen artean eduki zaitzadan, amodiozko hitzak xuxurlatzeko; antsika, zure ederrak besarkatu eta ahoan berriro musukatzeke. Agian nere gogo negarrez ari da. Zure negarrak itsasoan murgiltzen diren perlak dira, eta arrenkura horren soinu txoa nere ametsetan zutik dago, lo dagoen aienea. Agian negarrez ari zara, eta zure bularren kontra nere portarretratos estutuko duzu, frenetikoki, zure belarrietaraino ailegatzen baita zu gabe nere bihotzak sentitzen duen oinazaren oihartzuna. Zu gabe eta zurekin egoteko antsika. Psikopata bat izan al da nire telefono erantzutzaile automatikoa hornitzen duena? Izurrik bizi den honek, adio.

Erantzuna: Ez, lasai askoan lo egin. Nat King Cole baino gauza aproposagorik ez du aurkitu zuri esateko bere bihotzeko azukre tontorra zarelara. Badakizu, gaur egun gizarte garatuetan amodiozko gutunak idatzi beharrean, maitalearen telefono-erantzutzaile automatikoarekiko amodiozko bakarriketak ibiltzen ohi direla. Literatur jenero berria dugu. Ameriketako izugarriko arrakasta izan du. Hemen goi mailako klasetan baino ez da erabiltzen.

Galdera: Komenigarria al da bertsoz idaztea maitalearen bihotza hunkitzeko?

Erantzuna: Egia esan, poesiak ez du ospe onik. Interesatu plantak egiteagatik-edo, gustoko duela esanen dizu, baina basapizti basati bat atseginagoa gertatuko zaio zu baino, diruz josita egonez gero. Geurea da Urrezko Aroa, urrearekin edozein gauza lortzen baita. Edarrietan adina gastatu urrean. Badira maitale kultoak direnak. Hauexei oparitu bertso sorta bat zera esanez, ez duzula lorik egin bere baitan pentsatzeagatik eta bertso horiek gogora etorri zaizkizula. Dena den ez pentsa hori opari handia denik. Urre pittin batekin frijitutako piperrik

minenak ere gehiago balio du, Ovidioren beraren Ars Amandik baino.

Galdera: Nere bizitza gexa xamarra da, eta gexak dira bertan agertzen zaizkidan gauzak. Aspaldi etorri zitzaidan ezkontzeko garaia, baina ezkongai nago oraindik. Ez daukat neskatxak lurratzeko adinako indarra, lotsatia izateaz gainera lodixkoa naizelako. Mehe ninteke, baina Koldo Mitxelenak zioenez «gu ere gehienetan, lodixkoak ez bagara, mehegiak aurkitzen gaituzte neskatxek aukeran». Halako batean, gutxien uste nuenean, beste nere gisako arima bakar bat aurkezten dit halabeharrak. Gainez egin dut pozez. Biharamonean dator, ordea, hotzaldia. Lagunek parre egiten didate —neskatxa ez da aldamentean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa— eta nire ama ere, «noiz ezkondu behar duk?-ka» beti ari zaidan ama, ez du semea ezkon-



«Geurea da

Urrezko

Aroa, urrearekin

edozein guaza

lortzen baita.

Edarrietan adina

gastatu urrean».



«Amodiozko

gutunak idatzi

barrean,

maitalearen

telefono-

erantzutzaile

automatikoarekiko

bakarriketak

ibiltzen dira egun».

tzeko bidean ikusteak gehiegi alaitu. Barrenak agintzen didana batetik eta zer esanak bestetik ditudala, nora jo?

Erantzuna: Koldo Mitxelenak esan zuenez «deus gutxiko arazoa. Erabaki gogorragorik hartu beharrean aurkitu ziren bai Cesar Rubicon ibaia igarotzerakoan eta bai Cortés ontziak zulatu aurrean. Baina, bere ezerezean, ez da zuretzat ardura gutxiagokoa, ezta errazagoa ere».

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Txori, arrain eta beste (II)

Ez dira gutti Txomin Agirre Badiola apez euskaltzain ondarrutarrak izkiriatu Kresala idazkiak jasotzen argitalpenak. 1880. urtean Jose Manterola kontabilitzaile donostiarra sortu *Euskalerria* izenburuko aldizkarian eta 1901. urtetik aitzina agertzen hasi zen lehenengo batez aldizka. Liburu bezala lehenbiziko argitalpena 1906. urtean jalgai zen Durangoko Florentino Elosuren moldeetan. Hirugarren argitalpena 1954.ean ageri zen Zarauzko Itxaropena argitaldarien eskutik *Kulixka* sorta bildumaren 5 eta 6 zenbakiekin. Edizio gehiagorik egon badaude, esaterako aste honetan bertan 'Egin' egunkariarekin batera banatu izan den liburua, baina gaurkoan guri interesatzen zaiguna aipa hirugarren hori dugu. Marrakiaz Santos Etxeberriak eta aurkezpena aita Onaindiak egina duen honetan gehigarri berezi bat dargerkigu 205 orrialdetik aurrera 'Itxas-iztegia' izenburuean euskal idazle askorentzat obrari izango dalakotan. 14 orrialdetan barna garatzen den zerrendatxo honek Azkueren hiztegi bera du oinarri.

Bizente Laffite Obinetak *Euskalerriko itsasberekak, kantauri itsas ertzeko arrain, oskoldun, soinbera ta arreddidun ezagunen errolda egiteko saiakera* agertu zuen 1935. urtean, Gipuzkoako Itsas-jakintzarako Elkarteak argitaratuta. 1976.ean Donostian jalgiriko bigarren edizio batean Jose Juan Iraola Mugika eta Migel Ibañez Artika irakasleak beraztertu eta gaurkotu zuten lana berriren zenbait gehituz. Interesanteena euskal ordain guziak ematen dituela dateke, V edo VF izan daitezkelarik.

Esan ere Laffite jauna etzela edonor, donostiar honek zientzia fisiko-kimikoetako doktorea baitzen, probintziako diputatua, eta foru-aldundiko lehendakaria 1924-26 biurtetan, Gipuzkoako Ozeanografi elkartearen kide eta lehendakaria ere izan zen eta berari esker itsasoaren jauregia eta akuarioa egin zen.

Jose Iturria Erize, Lezo'ko Joseba Aba alegia, *Eiza-iztia edo abere eta piztiak* izeneko 139 orrialdetako lantxo polit bat agertarazten du *Tipografica general Bazkunen irarria* delakoan 1929. urtean *Euzkadi'ren irar-lanak* deitu sailan. Honetan zenbait animala eta basa piztien berri ematen du eleketa moduan, hala nola sugeak, kokodriloak, muskerrak etabar. Zinez interesgarri. Halako

batean honela dihardu zikoinez: 'Zer dek amiamokoa? -Orrelako egazti anka luze batzuek, ostiral santuetan karrakak urra urra josten duten bezala jo egiten dutenak eta kabiak kanpantorretan eta ipintzen dutenak. Bein Tudela al-dian egon nintzan, eta han ikusi nituen nik'.

Jada erleen gaineko liburu bati buruzko aipamenik utzia dugu honetan. Halere orduan ez genuen 28 orrialdetako 1933. urtean Tolosara ageri idazki txipi baten berri eman. Hauxe, 1932.ko orrillaren 15ean Donostiako *Euskal esnalea bazkunan* Lopez Mendizabal'tar Ixakak egin hitzaldia dugu. *Xabierto* lan ezagunaren sortzailea zen Lopez Mendizabal tolosarrak bazituen erlategi franko, bere erlazantzaletasun handia konprengiarri. Bere txostenean autore ugarien berri ematen du, eta guzieren artean, hona ekarri Santa Barbararena ere.

Pedro Garmendia saratarrak, 'Nombres de aves en Euskera' izenburuko artikulua argitzera ematen du RIEV aldizkarian, 1934. urtean, 15 orrialdetakoa. Egiten duen klasifikapena hauxe dugu: *rapaces, pájaros, columbas, gallináceas, zancudas eta palmípedas*. Bergiliren itzultzailea izan zen Andimá Ibiñagabeitiak 'Landareetaz atsapenak: botanika asi-masiak' utzi zituen 1951. urteko *Euzko gogo* aldizkariaren orrietan hiru artikulutan. Bere asmoa 'lan-ikastolako-mailako nexkamutikoentzako' ikasgai batzuk aurkeztea da. Halere darabilen euskara zaila irakurlearendako oztopo garri suerta daitekela onartzen du: 'Norbaitek erritarrek nere botanikaren erdirik ere ez dutela ulertuko esango dit. Baleike egia ori ere. Erdaldun erritarrek beren izkuntzez idatzitakoak zearo adituko ote litukete?'.

Itziar ta Aguirre'tar Martinek, *Gure txoriak* izenburuko lan ederra ondua du, gorago aipatu *Kulixka* sorta sailan 62 zenbakiarekin Itxaropena argitaitxeak 1966. urtean Zarautzen agertu zuena alegia. Bertan Euskal Herrian ikus daitezkeen 240 inguruko txoriren zerrenda luzea agertzen du, baina ez egungo ornitologiako esku liburuetan bezala, baizik eta molde zaharrei atxekituz, elkarrizketa moduan tajaturik: 'Matxin, alderdi auetan aurten baño galeper gutxiago, etzan orratik inoiz ere izango! Bakinabat aldiz ibilliak gaituk bat erri alde ontan baño, aurten egazti orren kanturik batean beik ere ez diat entzun!'.




■ Udaberri txapelketako seigarren ihardunaldiko partida, 1995ko maiatzaren 17an jokatua. Carlos Perez Marchal, 1.800 ELOkoa-Miguel Argaya, 1.975 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ac4,Ae7; 4.0-0,d6; 5.h3,Ae6; 6.Ab3,Zf6; 7.d3,Dd7; 8.Ae3,d5. Aurrerapen honekin 'e4-ko' peoia ahuldu da. Eta 'f6-ko' zaldia oztipoa bihurtu. 9.Zg5,e4. Egokiagoa zen 'h6'. Partida okertuko zaie beltzei. 10.Ae6,e6; 11.Ze4,Ze4; 12.e4. Erdiko peoi beltzak gaizki geratu dira. 12....Ad6; 13.Zc3,a6; 14.a3,De7; 15.Dh5 xa,g6;

16.Dg5,Df7; 17.aG-d1,h6; 18.Dg4,0-0-0; 19.Za4,Zd4; 20.c3,h5; 21.Dg5,Ze2 xa. Hutsa. Zal-diak hortik aterabide gaitza dauka.

22.Eh1,Ae7; 23.De5. Partida oker jarrita zegoelako edo, beltzek peoi bat eman dute eraso egin ahal izateko. 23.... Ad6; 24. Fa5, Af4; 25. Dc5, g5. Ikus Koadroa. Aukera ederra dute txuriek etsaia suntsitzeko. Ez dute galduko. 26. Zb6 xa, Eb8; 27. Zd7 xa, Ec8; 28. Da7, c5; 29. Af4, Df4; 30. Zc5, Df7; 31. Za6. Eraso egin nahian, defentsa alboratu zuten, zuhurbageziak jota. Ondorioz, beltzak makurtu ziren.



PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Pilotarien Batzarraren hamargarren ekitaldia izango da honakoa, duela bost urte Lizarran ospatu zenaren ondotik Nafarroako bigarrena. Ez da gehiegi aldatu ordutik honako egitaraua: omenaldia pilotarekin zerikusirik izan duten izen ezagun batzuei, elkartearen batzar orokorra, pilota partiduak eta bazkaria. 1958an Ipar Euskal Herrian Jean Darricauk osatutako Pilotarien Biltzarraren ideiarri jarraiki, pilotarekin harreman handia izan dutenak gogoratzea izaten da egun honen zio nagusia, belaualdi berriei gogoraraztea behialako pertsonaia hauen merituak.

Lesakako Udalak eta Pilotarien Batzarra aritu dira elkarrekin bi egun hauetako ekitaldiak prestatzen joan den urrian ideia aurrera eramatea rabaki zenetik eta zazpi hilabete hauetan bilera ugari egin ondoren, ekitaldi polita osatu dute asteburu honetarako. Bihar, larunbata, hasiko dira ekitaldiak, eskoletako haurren artean udal frontoian egingo diren pilota partiduekin. Arratsaldeko seietan zabalduko da Beti Gazte elkartearen herriko pilotaren inguruan prestatu den argazki erakusketa, eta ordu bat geroago afizionatuendako pilota partiduak izango dira berriro ikusgai, eskuz banaka zein bikoteendako.

Igandea izango da egun nagusia, eta dianak prestatu dira aurrenik. Hamarretan udaletxe-ko arkupetan paratuko da argazki erakusketa, eta ordu horretan izango da pilotazale guztiendako deialdia, Plaza Zaharrean. Hamaitan harrera ofiziala egingo da udaletxean, eta 11.15etan, udal banda eta txistulariak aurrean dituztela, omenduak eta bazkideak San Martingo elizara abiatuko dira, hildakoen omenez egingo den mezan parte hartzeko. Lesakako Abesbatzak alaituko du ekitaldia. 12.30etan Lesakako dantzariak Onin ibaiaren gainean dantza egingo dute, XV. mendeko Lesakako auzoen arteko bakea gogoratuz, eta 12.45etan Pilotarien Batzarraren batzar nagusia egingo da udaletxe-ko areto nagusian. Bertara gai nagusi bat eramango du Josetxo Iraundegi lehendakariak: pilotaren patriaren eguna berreskuratzea, alegia. Egundak erabat ahanztirik baldin badago ere, Xabierko Frantzisko da pilotaren patroia, eta abenduaren 3an festa egingo du berriro Pilotarien Batzarrak horren kariatz, batzar nagusiak horrela onartuz gero. Ekitaldiak amaitezko bazkaria egingo da bertako pilotalekuan, eta amaieran herrialde guztiek aukeratu dituzten pilotazaleak omenduko dira.


Hamahiru izango dira aurten-eko omenduak, sei Nafarroaren partetik eta beste zazpi gainontzeko herrialdeek izendaturik. Omenduen izen gehienak eguna antolatu behar duen lurraldeak erabakitzen ditu: antolatzaileek laupabost izen aurkezteko esku-bidea daukate, eta gainontzeko herrialdek bana izendatzen dute.



Hamahiru izango dira aurten omenduak, sei Nafarroaren partetik, eta beste zazpi gainontzeko herrialdeek izendaturik.

Aurten sei izen aurkeztu zituzten Nafarroako bazkideek, eta batzordeak onartu: Elizondoko Antxitonea trinketa, Iruritako Laxoa Elkartea, Jose Gabriel Maritxalar 'Vithiri' Lesakako pilotari afizionatu ohia, Rafael Belarra Altsasuko kazetaria, Marcelino Bergara 'Bergara I' pilotari profesional ohia eta Marcelino Sanjurjo Lizardi kazetaria.

Horiekin batera Felipe Palacios Elgea agintari ohia izendatu du Arabak, Galarreta pilotalekua Gipuzkoak, Domingo Sacristan pilotari afizionatu ohia Errioxak, Manuel Rey Agirre pilotari ohia Bizkaiak, eta Jean Darricaud Pilotarien Biltzarraren sortzailea izan zena. Josetxo Iraundegik azaldu duenez, Batzarraren asmoa zen omenduen izen zerren-



Antxitonea trinketa eta Laxoa Elkartea omenduko dituzte.

Uteroko festa egunak ospatuko ditu asteburu honetan Lesakan Pilotarien Batzarrak, duela hamar urte pilotazaleak biltzeko osatu zen elkarteak. Ohi bezala, omenaldia egingo zaie pilotaren alde egindako lanarengatik nabarmendu direnei, eta, besteak beste, Elizondoko Antxitonea trinketa, Laxoa Elkartea eta Rafael Belarra kazetaria daude aukeratuen artean.

Pilotarien Batzarra Lesakan

da murriztea, «luzea egiten baita oso ekitaldia», baina oraingoz, inoiz baino gehiagok jasoko dute egin duten lanarengatik merezi izandako omenaldia Lesakan.

PILOTARIEN BILTZARRAREN ONDORRENGOA

Bost herrialdeetako —Hego Euskal Herriko lauak eta Errioxa— pilotazaleek osatzen dute egun 500 bazkide inguru dituen elkarte hau. Urtean behin biltzen dira pilotaren alde egindako lanarengatik nabarmendu diren lagunak omentzeko, eta urtean zehar kirol zahararen inguruan hainbat ekitaldi egiten dituzte.

Josetxo Iraundegi gaur egun-eko lehendakariak azaldu duenez, 1958an Jean Darricaud Ipar Euskal Herrian sortutako Pilotarien Biltzarraren ondorengoa da elkarteak. 1971n Iraundegi bera omendu zuen Biltzarrak eta hortik aurrera urtero egiten zen festara biltzeko ohitura hartu zuen egun Pilotaren Nazioarteko kide denak, Chus Fernandez Iriondo nazioarteko federazioko lehendakariarekin batera. Horieta-ko batetik bueltan mugaz alde honetan ere antzeko zerbait egin zitekeela bururatu eta lanean hasi ziren. Ordura arte omendu guztiak bildu eta beren aldeko iritzia jaso ondoren, lehen bilera 1985eko urriaren 13an egin zen, eta Txomin Altube aukeratu zuten lehendakari.

Pilotariak, agintariak, epaileak, apustulariak, denak biltzen dira elkarte honetan, eta helburu nagusia zaharren oroitzapena ez galtzea da. «Gazte askok ez dituzte inoiz entzun antzinako pilotari edo agintarien izenak», azaldu du Iraundegik, «eta gure asmoa da horiek eginiko lana berriro gogoratzea». Halaber, la- guntza ematen zaie larrialdietan, bisita egiten zahartzaroan edo gaixo direlarik...

«Patxi Larrainzarren homiliak erabiltzen ditugu oraindik»

A. BARANDIARAN / IRUNEA


Patxi Larrainzarren 'Pecados veniales de un cura asilvestrado' ('Sasituriko apaiz baten hoben arinak') izeneko liburua aurkeztu du aste honetan Txalaparta Tafallako argitaletxeak. Hau da etxe honek Errezuko apaizari karrikaratu

tzen Patxi Larrainzarren obra guztia. Oraindik asko falta da, lan handia duelako oraindik argitaratu gabea, baina argia ikusi duena azpimarragarriena dela esan daiteke?

JESUS LEZAUN.— Bere liburu-rik onena 'Diario de un cura suburbano' da, eta 'Pamplona se hunde' ere oso ona da, ho-

poesia, poemak baizik. Bera ez zen poeta, baina bazuen horretarako etorria. Poema erlijiosoak dira —pregoiak, ospakizunak—, baina ezin zaio eskatu ez-dakit-noren lan poetikoaren perfektzioa. Literaturan poesia egiten duten poeta horietako bat zen, artikuluetan oso ongi sartzen zuelako, poe-

rreko gizon honek arbuia egiten zuen boterea, eta ez zen literatur inguruko inongo bileratara joaten: boterea, interesa, marro itxura hartzen zien be-rehala. Horregatik, zerbait idazten zuenean, bere kabuz egin behar izaten zuen dena, ez genuelako aurkitzen argitalexterik hori kalera ateratzeko. Askotan berak banatzen zituen zuzenean liburuak lagunen artean. Azkenean, Jose Mari Esparak esan zion bilatu behar zuela argitaletxe bat, eta berekin hasi zen beste liburuak argitaratzen. Horregatik, hasiera haiek ez zuten ezertan lagundu gizon honen lana eza-



Jesus Lezaun, liburuaren aurkezpenean.

JOXE LACALLE

dion laugarren liburua, eta oraingoan Herria 2000 Eliza taldeak bere aldizkarian 'Diario de un cura asilvestrado' zintiloaren azpian argitaratu zuen sailekoak biltzen dira.

Lau urte igaro dira dagoe-neko 'Pega, pero escucha' autorearen ustekabeko heriotza jazo zenetik, eta urte hauetan ez da apaldu bereganako estima. Arrotxapeko apaiz honek marka handia utzi baitzuen bai fededunen artean —bere meza eta homilien bidez—, bai hainbat argitalpenetan bere artikulua irakurtzen zituztenen artean. Javier Lezaun apaizak gertu-gertutik ezagutu zuen, eta bera arduratzen da egun argitaratu gabe dauden lanez. Larrainzarren lan guztia, batez ere hasierakoa, berriro argitaratzeko asmoa du.

EGUNKARIA.— Zuek, hil zenez geroztik ari, zarete atera-

riek direlako berak erabat bukatuta utzi zituenak. 'Adiós Monseñor' ere oso gogoko zuen, baina idatzi zuen garaian, Francoren azken urteak, inor ez zen argitaratzen ausartu. Horiakin batera badira berak argitaratutako gauzak, badira argia ikusi ez dutenak, hainbat tokitan aurkeztu arren inor ez zelako ausartu, eta badira ere urte haietan hainbat argitalpenetan azaldutako artikulua bildu dituztenak. Horiakin batera, homiliak eta bukatu gabe utzi zituen lanak dira gelditzen direnak.

EGUNKARIA.— Bere homiliak dira, hain zuzen ere, gelditzen den lanik interesgarriena?

LEZAUN.— Bai, hori da aipagarriena, balitekeelako 700 orrialde inguru izateko. Gelditzen da, halaber, poesia adierazgarri bat. Esan behar da hala ere, ez dela, zuzen esanda,

ta zelako artikulua horien bidez. Poesia zerion, bera zen poesia, baina gehienbat mezua interesatzen zitzaion. Nik askotan entzun nion azken hamarkadetakoa poesia kritikatzeko, berebiziko garrantzia eman zaio-lako formari, zorroari, hizkuntzagatik hizkuntza bilatzen delako, baina mamirik gabe, finean. Patxiri mezua gustatzen zitzaion, eta nahiz eta ez jakin zein poeta zuen gustukoena, Neruda zela esango nuke nik, horko zorroa mezua gordetzeko baino ez delako egiten.

EGUNKARIA.— Larrainzar hil ondoko liburuek arrakasta handia izan dute Nafarroan. Uste duzu eragin handiagoa izan duela hil ondoren bizi zelarrik baino?

LEZAUN.— Bai, hala uste dut nik. Bere lan onena bizirik zela argitaratu zen, baina zoritxa-

Mundu erlijiosoak ito egin nahi izan zuen Patxi Larrainzar: ez da ahaztu behar a *divinis* etenaldia gainean zuelarik hil zela».


gutarazten. Gainera, iruditzen zait hasierako lan haiek berargitaratu egin behar direla, oso gaizki editatu zirelako eta oso ezezagunak direlako.

EGUNKARIA.— Eta bere lanen bidez utzi zuen eraginaz gain, zer hazi utzi zuen zuengan, berarekin zeundetenen artean?

LEZAUN.— Oraindik parroquia asko beragatik bizi gara. Askotan, Patxi erabiltzen zituen homiliak erabiltzen ditugu, eta penitentziak egiterakoan, bera baliatzen zen eskemaz baliatzen gara. Bere lana ez da oso era txukunean aurkeztu, eta mundu erlijiosoak ito egin nahi izan zuen: ez da ahaztu behar a *divinis* etenaldia gainean zuelarik hil zela. Bere homiliak jende askoren artean banatzen ziren atera orduko, baina ez zen gizon hau ongi aprobetxatu.

Jesus Lezaun

/ APAIZA



/ SOSLATA

Larrainzarren lagun mina

Jesus Lezaun izan zen Patxi Larrainzarren lagun minetako bat, eta hura hil ondotik frankotan azaldu da haren izena agertzen zen toki orotan. Egun haren lan guztia argitaratzeko asmotan ari da, eta horretarako Txalaparta argitaletxearen laguntza azpimarratu du Lezaunek. «Askotan ibili gara beste argitaletxeetan eske eta ez digute kasurik egin». Haren lan gehiena kalean izanik ere, Elizak eta gizarteak Larrainzarri paratu zioten madarikatuaren marka urteetan ez diotela kenduko uste du Lezaunek. «Gizarteak ez du erraz barkatzen, eta Eliza ehun urte gutxienez berandutuko da horretan. Hala ere, etorkizunean Larrainzarren pertsonalitate handia onartuko da».

NOSKI JATOR

HAUTESKUNDEAK ③ eta fini: KAR, KUR, KAR!! JUD, JUD, JA!



© Zaldí EROA